

Mikrokontakizunen IX. Lehiaketa

Euskarazko literatur sormena sustatu eta bultzatu nahian, Barakaldoko Kultur Ekipamenduen Hurbileko Sareak Mikrokontakizunen IX. Lehiaketarako deialdia egingo du.

- Hala nahi duten 16 urtetik gorako guztiek har dezakete parte lehiaketa honetan euskarazko kategorian.
- Parte-hartzaileek **gehienez 20 hitzeko mikrokontakizun bat** idatziko dute, **kontatu gabe** derrigorrean sartu beharko diren hitzak: **'Begi ertzetik begira'**. Halaber, parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 2 lan aurkeztu ahal izango ditu, beti ere oinarri hauek xedatzen dituzten betekizunak aintzat hartuta.
- Kontakizunak originalak, argitaragabeak eta aurrez saritu eta/edo argitaratu gabeak izango dira.
- Kontakizunak **'Whatsapp'** edo **'Telegram'** bidezko mezu baten bitartez bidaliko dira ondoko telefono zenbakira: **650 700 261**, inolako izen edo identifikazio-daturik adierazi gabe.
- Mikrokontakizunak bidaltzeko epea **2024ko apirilaren 15eko 00:01etik apirilaren 29ko 23:59ra** egongo da zabalik. Epe horretatik kanpo ez da mezurik onartuko.
- Honako sari hauek banatuko dira:
 - **1. Saria: 200 €**
 - **1. Akzesita: 150 €**
 - **2. Akzesita: 150 €**
- Epaimahaia komunikazio, hizkuntza eta literatura alorreko profesionalak osatuko dute. Epaimahaia apelaezina izango da, eta epaimahaia ebatziko du oinarrietan agertzen ez den edozein gorabehera. Sariak eman gabe ere gera litezke.
- Epaimahaia jasotako 20 mikrokontakizunik onenak hautatuko ditu, ondoren horien artean sarituko diren 3 lanak aukeratzeko. Finalistak zein saritutako 3 lanak **Barakaldo Euskaraz** gizarte sareetan argitaratuko dira.
- Sariak 2024ko maiatzaren 16an** Barakaldo Antzokian egingo den **Sari Banaketa ekitaldian** emango dira jakitera.
- Ez dute lehiaketan parte hartzerik izango ez epaimahaikideek, ez zuzenean antolakuntzarekin zerikusia duen inork.
- Barakaldoko Udalaren Kultura Arloak lan guztien jabetza bereganatuko du, baita eurak erakutsi, berregin edo argitaratzeko eskubidea ere. Lanak Udalaren kultur ondare bihurtuko dira eta ezin izango dira salerosi.
- Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriak oso-osoan onartzen direla esan nahi du. Aurkezteko baldintzak betetzen ez dituzten lanak atzera botako dira.

Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan adierazitakoa betez, jakinarazi nahi dizugu inprimaki honetan adieraziko dituzun datuak Kultur Aretoko Lehiaketetako partaideen datu-fitxategi batean erregistratuko direla; horren helburua deialdian parte hartzen duten hautagaiak ezagutzea da; informazioa Barakaldoko Udalaren Kultur Arloko langile eta arduradunek jasoko dute eta fitxategiaren arduraduna Barakaldoko Udala izango da (Herriko Plaza, 1).

Informazio gehiago:
650 700 261
euskara@barakaldo.eus

